

**LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2018/2019 ikasturtea**

**AHOZKO HIZKUNTZA EZ FORMALA KOMIKIAREN BIDEZ  
LANTZEKO PROPOSAMENA**

**Egilea: Jurdan Eeles Derteano**

**Zuzendaria: Aintzane Etxebarria Lejarreta**

## AURKIBIDEA

|  |    |
|--|----|
| 1. Sarrera.....  | 1  |
| 2. Marko teorikoa. ....  | 2  |
| 2.1 Definizioa. Fraseologia zer den .....  | 2  |
| 2.2. Unitate fraseologikoen sailkapena.....  | 4  |
| 2.3. Fraseologia irakasteaz.....   | 5  |
| 2.3.1. Fraseologiaren irakaskuntza ama-hizkuntzan.....                             | 5  |
| 2.3.2. Fraseologiaren irakaskuntza bigarren hizkuntzan .....                       | 10 |
| 2.4. Komikien eta irudien erabilera UFen ikaskuntzan/irakaskuntzan .....           | 11 |
| 2.4.1. Komikien/irudien erabilera Heziberriren esparruan .....                     | 12 |
| 2.4.2. Komikiak, eta irudiak orokorrean, erabiltzearen gaineko beste iritzi batzuk | 13 |
| 3. Metodologia: Komikiaren bidez unitate fraseologikoak lantzen.....               | 14 |
| 3.1. sarrera .....   | 14 |
| 3.2. Unitate fraseologikoen bildumarako iturriak.....                              | 15 |
| 3.3. Unitate fraseologikoak hautatzeko irizpideak .....                            | 16 |
| 3.4. Materialak nola landu aztertuz .....  | 18 |
| 4. Proposamena. Unitate fraseologikoak lantzeko komikiaren nondik norakoak .....   | 20 |
| 4.1. Komikia egiteko prozedura .....   | 20 |
| 4.1.1. Komikiaren testua osatzeko prozedura.....                                   | 20 |
| 4.1.2. Komikiaren irudien inguruko ohar batzuk.....                                | 21 |
| 5. Ondorioak eta etorkizunerako ildoak .....                                       | 21 |
| 6. Erreferentzia bibliografikoak.....  | 24 |
| 7. Eranskinak.....   | 27 |
| I. Eranskina. Unitate fraseologikoak bilatzeko Iturriak.....                       | 27 |
| II. Eranskina. Altzibarren ohiko hizketa formulen laginket.....                    | 31 |
| III. Eranskina. Zamarriparen lokuzioen laginketa.....                              | 35 |
| IV. Eranskina. Komikiaren testua.....  | 38 |
| V. Eranskina. Komikiaren irudiak.....  | 48 |
| VI. Eranskina. Komikiaren jarduerak.....   | 64 |

## **AHOZKO HIZKUNTZA EZ FORMALA KOMIKIAREN BIDEZ LANTZEKO PROPOSAMENA**

**Jurdan Eeles Derteano**

UPV/EHU

Euskararen erabileran adierazkortasunaren aldetik nabaritzen diren gabezien inguruko hausnarketa da GRAL honen abiaburua. Arazo horri hezkuntzaren ikuspegitik erantzuteko tresnen bila, fraseologiak eskaini ditzakeen baliabideak aztertzen dira. Agerian jartzen da fraseologiaren eta hezkuntza/irakaskuntzaren arteko uztardura gutxi landutako arloa dela hezkuntza-curriculumetan. Unitate fraseologikoen bildumetan eta iturrietan arakatzearan oinarritutako urrats erraz batzuk proposatzen dira adierazkortasuna eta bizitasuna lantzeko, era jolasgarrian, komiki eta ipuinen munduarekin uztartuta. Azkenik, fraseologiak hezkuntzan ekarpen aberatsa izan dezakeela ondorioztatzen da, baita arlo horretan gabezia dagoela ere. Horri erreparatuta, ekimena eskatzen zaio hezkuntza-sistemari, fraseologiaren ekarpena era zabalagoan barneratu dezan.

*Adierazkortasuna, gabezia, fraseologia, baliabideak, hezkuntza*

El presente TFG parte de una reflexión sobre las carencias de expresividad en el uso del euskara. En la búsqueda de aportaciones que el mundo educativo puede llevar a cabo en ese ámbito, la fraseología se presenta como un recurso a tener en cuenta. Se constata que la incorporación de la fraseología en la educación/enseñanza es un campo muy poco desarrollado en los curriculums educativos. Ante ello, se proponen unos sencillos pasos basados en la exploración de diversas fuentes de contenidos fraseológicos con los que trabajar la expresividad de una manera entretenida, con la ayuda del mundo del cómic y los cuentos. Finalmente, a la vista de la enriquecedora aportación que la fraseología puede hacer al mundo educativo y las carencias en ese campo, se insta al sistema educativo a incorporar de una manera más amplia las aportaciones de la fraseología.

*Expresividad, carencias, fraseología, recursos, educación*

The present TFG is based on a reflection of the lack of expression in the use of the Basque language. In the search for contributions that the educational world can carry out in this field, phraseology is presented as a resource to be taken into account. It is noted that the incorporation of phraseology in education / teaching is a very little developed field in the educational curricula. Thus, some simple steps are proposed in the exploration of the different sources of phraseological content with which expressivity works in an entertaining way, with the help of the world of comics and stories. Finally, in view of the enriching contribution that phraseology can make to the educational world and the deficiencies in that field, the educational system is urged to incorporate in a broader way the contributions of phraseology.

*Expressiveness, lack, phraseology, resources, education*

## 1. Sarrera

GRALaren aurkezpenean adierazi nuen bezala, arlo hau (fraseologiarena) erabat berria zen niretzat. Ama-hizkuntzetako bat ingelesa izatetik eta hizkuntza horren irakaskuntzan *phrasal verbs* deritzotenei ematen zaien garrantzia ikustetik sortu zitzaidan GRAL honetarako aztergaitzat horren inguruko zerbait aukeratzeko asmoa. Euskaraz, berriz, ez nuen ikusten hainbesteko garrantzia ematen zizaionik. Nire ikasle urteetan eta irakaslegai urteetan ez dut gogoratzen horri buruz berariazko ahalegin eta ikasgai berezirik egin izana. Ez dut gogoratzen espresibitatea, adierazkortasuna edo, nahi bada, bizitasuna berariaz landu izana, eta neure buruari eta inguruari (hurbilekoari zein gizarte osoari) begiratuta ez dut nabaritzen, batez ere jende gaztearen artean, euskara “bizia” egiten denik, ez behintzat behar litzatekeen beste, agian euskaraz bizitzeko behar den tresna nahikorik ez dugulako. Askotan ez gara gauza izaten (edo ez gaude ohituta) esaldi oso bat euskara hutsean esateko, eta edozein unetan sartzen ditugu erderazko berbak, esaldiak edo, besterik gabe, erdara hutsean hasten gara<sup>1</sup>.

Ez da gaur egun sortu den kezka, aspalditik datorrena baizik. Lan honetarako bilaketan lanaren hasiera-hasieran bilatu dut hauxe esaten zuela Justo Mokoroak (1935, 77 or.), *Jenio y Lengua* liburuan: "Así, por ejemplo, ¿No hemos dejado disiparse casi del todo el espíritu del euskera en la literatura, por descuidar el modismo, el giro, la fraseología?"

Izan ere, hasiera batean fraseologia hitza bera ere ez nuen identifikatzen eta “sarean” egindako lehen bilaketetan laster agertu zen *phraseology* hitza lehenengo, eta fraseologiarena hurrengo. Hortik aurreragoko guztia ibilbide malkartsua (eta aberasgarria ere) izan da fraseologia zer den, zer lantzen duen eta irakaskuntzaren arloan adierazkortasuna aberastearen inguruan zer nolako aplikazioa izan dezakeen ateratzen joateko.

---

<sup>1</sup> Code-switching, process of shifting from one linguistic code (a language or dialect) to another, depending on the social context or conversational setting. Sociolinguists, social psychologists, and identity researchers are interested in the ways in which code-switching, particularly by members of minority ethnic groups, is used to shape and maintain a sense of identity and a sense of belonging to a larger community. <https://www.britannica.com/topic/code-switching>

## **2. Marko teorikoa.**

### **Fraseologiaren langaia zedarritzen.**

Marko teoriko honetan lau atal nagusi landuko dira: fraseologiaren definizioak, unitate fraseologikoen sailkapenak, irakaskuntzako aplikazio posibleak eta irudien nahiz komikien erabileraren inguruko giltzarri batzuk.

#### **2.1 Definizioa. Fraseologia zer den**

Lehenik eta behin, langai izango dena identifikatzeari eta esparru akademikoan horren inguruan dauden teoriak eta iritziak jasotzeko arakatzeko lana egin da. Lehen pausoak inguruan (gaztelerakoan) zer dagoen aztertzen eman dira.

Ibilbidea oinarri-oinarrietatik hasita, definiziotik bertatik hain zuzen, hona hemen fraseologiaren definizio batzuk:

Real Academia de la Lengua Españolaren definizioan hauexek agertzen dira: “1.- Conjunto de modos de expresión peculiares de una lengua, de un grupo, de una época, actividad o individuo. 2.- conjunto de frases hechas, locuciones figuradas, metáforas y comparaciones fijadas, modismos y refranes, existentes en una lengua, en el uso individual o en el de algún grupo. 3.- Parte de la lingüística que estudia las frases, los refranes, los modismos, los proverbios y otras unidades de sintaxis total o parcialmente fijas.”

Manuel Secok (2005: 13) honakoa dio: “El término fraseología recubre no sólo las locuciones en sentido propio, sino todas las combinaciones de palabras que, en su práctica del idioma, no son tomadas libremente por el hablante, sino que se le dan ya prefabricadas, como “paquetes“ que tienen en la lengua un valor propio establecido por el uso tradicional. El objeto principal de la fraseología es la unidad fraseológica”.

María Moliner (1994: 1338.) fraseologia kontzeptua honela definitzen du: “estilo o modalidad de las frases de un escritor o de un país”.

Horretara helduta, hasiera hasieratik, hainbat arlo edo osagai ikusten dira fraseologia termino horren barnean (locuciones, modismos, refranes proverbios...) eta Manuel Seco irakasleak emaniko definizio horretan “hiztunak, hizkuntza darabilenean, libreki hartzen ez dituen hitzen konbinaketa guztiak” sartzen ditu, “hiztunari aurretiaz eginik ematen zaizkionak, tradiziozko erabilerak ezarritako hizkuntz balio propioa duten ‘pakete’ moduan”. Beraz, Erabat zabala eta, oraingoz, lausoa azterlan honetarako aztergaia.

Kaltzakortak (2001: 74) Euskera aldizkariko artikuluan baten<sup>2</sup>, zer den fraseologia atalean, honelakoak adierazten ditu:

Badira, ordea, hitz konbinazio egin batzuk, eginak, finkatuak edo ihartuak direnak. Erdaraz hainbat modutara izendatuak izan dira, modismos, idiotismos, giros, frases hechas, locuciones... [ ] Euskaraz ere horrelako esapide eginak asko ditugu [ ] Euskaraz hainbat hitz egon izan dira: esaera, esapide, erramolde, esakune, erranairu eta abar. [ ] Esapide finko horiek eta antzekoak aztertzen dituen disziplina bat badugu, ihardunaldiotako *fraseologia* delakoa. [ ] Alberto Zuluagak esaten duenez, bi hitz gutxienez finkatzen edo lotzen dituen konstrukzio linguistikoak aztertzen ditu fraseologiak. Gutxienez bi hitzen lotura edo uztartze hori finkatua dago [ ] hiztunengan, "instituzionalizaturik" dago. Tankera horretako diskurtso finko edo lotuari fraseologian, *expresión fija* edo *unidad fraseológica* deitzen (UF) zaie. [ ] Fraseologia, beraz, unitate fraseologikoak aztertu eta sailkatzen dituen disziplina izango da. (Euskera, 46(1): 74).

Jarraian, Kaltzakortak (2001) fraseologiaren historiari buruzko iruzkina egiten du eta aurrekari historikoak aipatu ondoren hauxe gaineratzen du:

Duela mende erdi [...] Fraseologia disziplina zientifikoa izateko oinarriak jartzen aritu zen. [ ] Garai hartaz gero, zehaztasun eta zientifikotasunez ihardun nahi izan da, esaldi egin, finkatu edo ihartuak aztertzeko orduan. [ ] Espainian Julio Casaresen lanak garrantzi handia dute alor horretan aitzindari edo aurrelarietako bat izan zelako. [...] Geroztik, lan ugari egin da fraseologiaren muina eta nondik-norakoak bilatu nahian, esaterako, E. Coseriu, G. Corpas Pastor *Manual de fraseología española*, L. Ruiz Gurillo o M. Seco edo Alberto Zuluaga *Introducción al estudio de las expresiones fijas*. (Euskera, 46(1): 74-75).

Gaztelaren esparruan Julio Casares (1992) agertzen da aitzindari moduan. Kaltzakortaren artikuluan esaten denez Casaresek bereiztu egiten ditu "locuciones y fórmulas pluriverbales (refranes y frases proverbiales)" eta ohartarazi egiten gaitu ez dela erraza jakitea ze eratako lokuzioak diren: "Una locución es una combinación estable de dos o más términos, que funciona como elemento oracional y cuyo sentido unitario consabido no se justifica, sin más, como una suma del significado normal de los componentes" (Casares, 1992: 170). Hau da, lokuzioa osatzen duten hitzek bakoitzak bere aldetik dena delako esanahia badute ere, elkarrekin jarrita beste esanahi bat hartzen dute. Eta gaineratzen du "Las locuciones se dividen en dos grupos. Las primeras son *locuciones conexivas* que son formadas por palabras gramaticales como p. ej. *con tal que* (conjuntiva). Las segundas son *locuciones conceptuales* o *significantes*, esto quiere decir, que sus constituyentes presentan unidad conceptual". (Casares, 1992: 170)

Zuluagak dio (1980: 16), unitate fraseologikoak (UF)<sup>3</sup> direla "una combinación fija de palabras". Penadés Martínez-ek (1999: 11), ordea, dio "combinaciones de palabras que

---

<sup>2</sup> Euskal Fraseologia: Justo Maria Mokoroaren omenez, haren jaiotzaren mendeurrenean / Herri Literatura, VI Jardunaldiak, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, 2000ko abenduaren 28 eta 29an

muestran un alto grado de fijación en su forma y en su significado” direla. Beraz, hasteko, unitate fraseologikoak hizkuntzan finkaturik dauden hitz multzoak direla esan daiteke. Egitura batzuk errepikatzearen poderioz finkatu egiten dira.

Martínez Marín-ek (1996: 103) bi ezaugarri nagusi ematen die: “la fijación (la estructura formal de estos elementos está fijada) y la idiomaticidad (el significado no depende de cada uno de los vocablos que constituyen la expresión fraseológica, sino que es unitario o propio del conjunto)”.

## 2.2. Unitate fraseologikoen sailkapena

Gloria Corpasek (1997) fraseologiaren sailkapen zehatza jasotzen du:

“- Esfera I colocaciones, actos de habla no completos que se ciñen a las normas de la lengua pero que tienen distinto grado de fijación según las normas de uso (Corpas, 1997: 270).

.- Esfera II locuciones, actos de habla no completos formados por combinaciones de palabras cuyo significado no es la suma de los componentes. (Corpas, 1997: 270)

.- Esfera III tienen cabida las UF que constituyen actos de habla completos, paremias y fórmulas rutinarias. Las primeras pueden servir para convencer, persuadir e instruir al receptor aunque, cuando no se persigue reacción alguna [...]. En cuanto a las fórmulas rutinarias, [...] persiguen primordialmente fines sociales y facilitadores de la interacción. En su mayoría sólo se limitan a constituir la expresión de sentimientos y actitudes canalizados socialmente o la realización verbal adecuada para encuentros ritualizados. (Corpas, 1997: 272-275)

Kaltzakortak aipaturiko artikuluko horretan<sup>4</sup> honakoa dio:

Gloria Corpasen liburuan, eta fraseologiaz ari diren lanetan orobatsu, hiru esfera edo gune desberdintzen dira. Alde batetik enuntziatuak ez direnak, "acto de habla" edo esaldiak ez direnak. Hor ditugu, berak esaten duen bezala, "kolokazioak" batetik, eta "lokuzioak", bestetik. (Euskera, 46(1):75).

Altzibarrek ere, Corpasen ildo beretik, dio:

Fraseologismo edo unitate fraseologikoak [...] bi hitzez, gutxienez, osaturikoak izan behar dira. Ondoko ezaugarriak dituzte: maiztasuna, instituzionalizazio edo emankortasuna, egonkortasun edo finkotasuna, esanahi berezitasuna, (gzt. idiomaticidad), aldakortasuna, gradazioa. (Altzibar, 2002: 55)

Bereiztu egiten ditu

[...] kolokazioak, hitz bi elkarrekin josiak joan ohi direnak (Kontu hartu, miseria gorria, estu lotu); lokuzioak, esakerak edo esamoldeak izeneko hitz andana edo egitura finkoak, esanahiaren eta gramatika funtzioaren aldetik batasuna dutenak (*ardi galdu, urrutiko intxaurrak, kukurruku jo, argi ta garbi*); eta paremiak edo atsotitzak eta ohiturazko hizketa-esamolde edo formulak, kolokazioak eta lokuzioak ez bezala, enuntziatu osoak direnak. (Altzibar, 2002: 55)

---

<sup>3</sup> Hemendik aurrera UF laburdura erabiliko da *unitate fraseologiko* esateko.

<sup>4</sup> Gloria Corpasek ere parte hartu zuen Justo Mokoroaren jaiotzaren medeurrena zela-eta 2001ean antolatutako jardunaldi haietan.

Baina ordura arte egindako bildumetan-eta egindakoari erreparatuta, zehaztasun handiagoz jokatu beharra azpimarratzen du:

Hiru esparru edo multzo nagusi horiek bereiztea komenigarria da, bereziki atsotitzak eta lokuzioak [...]. Hala ere, beti ez da erraz elkarrengandik garbi bereiztea, adib. kolokazioak hitz elkartu edo hitz perifrasietatik, edo paremiak lokuzio idiomatikoetatik; eta gero formulen artean badira lokuzioak, hitz bakarrekoak, interjekzioak. (Altzibar, 2002: 55)

Hortik lehen ondorio moduan atera daiteke (Kaltzakorta, 2001: 75): “errutinako formulak eta paremiak esaldi-unitateak direla (enuntziatu oso) eta lokuzioak eta kolokazioak ez, “enuntziatuak ez direnak, "acto de habla" edo esaldiak ez direnak”.

Aurreko guztitik, bada, honako sailkapena atera daiteke:

| Unitate fraseologikoak (UF)              |   |                               |                                 |
|--|---|-------------------------------|---------------------------------|
| Esaldi-unitateak                         |   | Sintagma-unitateak            |                                 |
| Errutinazko formulak<br><i>Ze moduz?</i> | Paremiak<br><i>Zozoak beleari ipurbeltz</i> | Lokuzioak<br><i>adarra jo</i> | Kolokazioak<br><i>Soinua jo</i> |

### 2.3. Fraseologia irakasteaz

Atal honetan ama-hizkuntzan eta bigarren hizkuntzan fraseologiak duen garrantziaren inguruko hausnarketa egiten da.

#### 2.3.1. Fraseologiaren irakaskuntza ama-hizkuntzan

Ikus ditzagun, hurrengo, fraseologiaren irakaskuntzaz/fraseologia hezkuntzan erabiltzeaz (derrigorrezko hezkuntzan irakatsi beharraz/komenigarritasunaz) bildutako zenbait iritzi eta artikulutatik ateratako ideia eta jarraibideak. Euskararen esparrura etorri aurretik, azter dezagun ea gazteleraz horren inguruan zer egin/egiten den.

Arestian ikusi denez, lehen hizkuntzaren (ama hizkuntzaren) irakaskuntzan fraseologia aplikatzearen inguruko ardura/kontzientzia nahiko oraintsuko gauza da. Fraseologiaren hasieretan beste diziplina batzuei loturik bazegoen ere, hizkuntzalaritzaren ikerketa-eremu oparo bilakatu da, baina bigarren hizkuntzen irakaskuntzari begira batik bat. Hortaz, ama-hizkuntzaren irakaskuntzaren hasierako mailetan eta maila ertainetan oso urria da fraseologiaren lanketa.

Martínez Marínek (1999: 99) hauxe dio: “las unidades fraseológicas (UF) son “insuficientemente atendidas –y eso cuando lo son– en la enseñanza del castellano,



aunque tienen una gran importancia en su estructura y funcionamiento, como ha revelado la investigación”.

Hauxe dio Francisco Nuñez-Románek fraseodidaktikaz idatzitako lan baten hasieran:

Una de las ramas que ha vivido un rápido desarrollo en el ámbito de la fraseología aplicada ha sido la fraseodidáctica. Esta evolución ha sido aprovechada sobre todo en el ámbito de la enseñanza de lenguas extranjeras, produciendo un interesante número de publicaciones y métodos destinados a la enseñanza de la fraseología para estudiantes alófonos, pero no ha tenido apenas reflejo en la enseñanza de la lengua materna. (Nuñez-Román, 2015: 154)

Ikusten denez, ama hizkuntza irakasteari begira GRAL honetan azaleratzen doan kezka inguruko hausnarketa egiten da.

Martínez Marínek (1999) gogotara ekartzen du María Isabel González Rey irakasle galziarrak gabezia horren inguruan egindako hausnarketa. González Reyk (2004) uste du hainbat direla hutsunearen eragileak: fraseologia kultura herrikoiaena soilik dela uste izatea (idatzizkorako balio gutxikoa, beraz); irakasleek horretarako behar besteko prestakuntzarik ez izatea; eta baliabide pedagogikoak urriak izatea. Egoera horren aurrean, González Rey ikertzaileak ahalegin berezia eskatzen du ama hizkuntzen fraseodidaktikan, batez ere Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan.

Nuñez-Románek artikulu horretan hauxe adierazten du:

Lamentablemente, este paso no se ha dado aún de una manera definitiva, como demuestran los nuevos currículos de Educación Primaria y Secundaria en los que la fraseología aparece de manera circunstancial como parte del vocabulario (R.D. 126/2014) o como un contenido exclusivo de la lengua extranjera (R.D. 1105/2014). (Nuñez-Román, 2015: 155)

Ildo beretik doa Josefina Prado Aragonés (Prado Aragonés, 1999: 157) irakaslea, Lehen Hezkuntzan ikasleek lexikoan iritsi beharreko helburuak zerrendatzerakoan, uste baitu irakasleek hausnartu egin beharko luketela “sobre las múltiples posibilidades creativas y expresivas que la lengua ofrece con el conocimiento de modismos, refranes y frases hechas”

GRAL honetarako giltzarriak (sormena, adierazkortasuna, hizkuntzaren bizitasuna) agertuz doaz, unitate fraseologikoen (UF) sormena eta espresabideak aberasteko baliabideak eskaintzen dituztela uste baitute adituek.

Nuñez-Románek (2015) fraseologiaren inguruan egin beharreko ahaleginaz hauxe dio:

Es fundamental [...] que el profesorado conozca los diversos repertorios fraseológicos disponibles, así como su organización interna, para sacar el máximo provecho de los

mismos. [...] es necesario un mayor esfuerzo investigador que permita conocer los conocimientos fraseológicos de los alumnos a través de la elaboración de fraseologías disponibles, [...] que nos darían una visión de conjunto fundamental para poder focalizar la atención en aquellas áreas temáticas más débiles y elaborar materiales didácticos más eficaces. (Nuñez-Román, 2015: 157)

Nuñez-Román autoreak (2015) prozesu metaforikoen garrantzia azpimarratzen du. Esaten du prozesu metaforikoen bitartez kontzeptu bat beste kontzeptu errazago edo ezagunagoen bitartez uler genezakeela. Esate baterako, (euskarazko adibide bat jartzearen) *kokoteraino nago* esanda, denok ulertuko dugu ondo zertaz ari garen, ez behintzat gorputzaren atal bati buruz. Prozesu horretan oinarritzen dira unitate fraseologiko asko, zeintzuk nekez ulertuko diren prozesu metaforikoen bitartez ez bada. Nuñez-Román irakasleak dio zailtasun hori bigarren hizkuntza ikasten ari direnei ez eze, ama-hizkuntzako ikasleei ere badagokiela, batez ere munduaren esperientzia zabala ez dutenei, hain zuzen ere Lehen Hezkuntzako ikasleei.

Esta dificultad no afecta únicamente a los hablantes no nativos que aprenden una segunda lengua, sino también a los hablantes nativos cuya experiencia del mundo no es lo suficientemente amplia, como es el caso del alumnado de Educación Primaria (y en menor medida, el alumnado de Educación Secundaria). La comprensión del lenguaje figurado, por otro lado, es uno de los objetivos de los bloques dedicados a la lectura y a la educación literaria (R.D. 126/2014). (Nuñez-Román, 2015: 158)

Carmen Navarro (2003) irakasleak dio “la competencia comunicativa requiere la metáfora para captar esos sentidos figurados, ironías y el variado repertorio de connotaciones que tienen los fraseologismos”. Eta zenbait konpetentzia curriculumean zeharbidez lantzeaz hauxe gaineratzen du:

Asumiendo la importancia de la fraseología en la lengua [...] ¿Cómo debe presentarse la fraseología en lengua materna? ¿Como parte del léxico? ¿Como elementos de la competencia comunicativa y discursiva? ¿Como ejemplos de la competencia cultural? Precisamente, la diversidad de aspectos desde los que se puede enfocar el acercamiento a la fraseología hace de ésta un tipo de contenido lingüístico especialmente flexible y polivalente, adecuado para desarrollar de manera transversal diversas competencias. Las propuestas didácticas basadas en las unidades fraseológicas (UF) de la lengua materna permiten, por lo tanto, abordar diferentes contenidos del currículo, por lo que se rebela como un recurso muy productivo. (Navarro, 2015: 159)

Bagoaz hurbiltzen didaktikaren arlora, hain zuzen ere fraseologia lantzeko proposatzen ari diren irtenbideetara. Lehenik eta behin, ikusi beharko da zer gaitasun landu nahi den Lehen Hezkuntzan fraseologiaren bitartez: hiztegia, espresabideak, adierazkortasuna, ezaupide kulturalak... Eta denak lantzen badira? Zeharkakotasunez lantzen badira? ‘

Núñez-Romanek (2015, 159. or.) bere egiten du Martínez Marín (1999) irakasleak dioena; hau da, fraseologia-mota bakoitza hobeto egokitzen zaiola curriculumeko arlo

jakin batzuei. Martínezen aburuz, kolokazioak garrantzitsuak dira lexikoaz ikasteko; sintaxiarekin ere lotuta daude, lotura asko unitate fraseologikoak direlako. Izan ere, kompetentzia ezberdinak lantzen egon gaitezke *hori txonta baten moduan dago* (lokuzioa) esaten badugu, edo zerbaitez harrituta, *holakorik!* (formula) esaten badugu, edo baten bati bere antzeko inor kritikatzeko duela ikusita *zozoak beleari ipurbeltz* (paremia) esaten badiogu... Batzuek adierazkortasunarekin zerikusi handiagoa dute; beste batzuek lexikoarekin zerikusi handiagoa dute; eta beste batzuek diskurtsoa antolatzearekin... Beste gauza bat da ikasketa-prozesuaren adin bakoitzean zer eta nola irakatsi beharko den.

Arlo praktikora hurbilduz goazela, hona hemen Núñez-Romanen artikuluan (2015: 161-162) Prado Aragonés (2004) irakasleak proposatzen dituen estrategiez dioena Lehen Hezkuntzan lexikoa aberastearen inguruan:

- Lexiko egokia aukeratu ikasleen komunikazio beharrezanen, erabilera maiztasunaren eta interesguneen arabera.
- Hiztegi berria benetako komunikazio egoeren bitartez ikasi.
- Hiztegia gero eta espezializatuagoa egitea maila gora joan ahala.
- Harreman semantiko eta kognitiboetan (harreman kontzeptualak) indar egitea.
- Estrategia eta ekintza suspergarriak eta jolasgarriak egitea, ikasitakoa sendotzeko.

Ikusten denez, lexikoaz dihardu, baina gure lan honetarako funtsezkoak diren kontzeptu batzuk aipatzen dira: maiztasuna, komunikazio beharrezanak, interesguneak, benetako komunikazio egoerak, harreman kontzeptualak, estrategia suspergarriak eta jolasgarriak. Núñez-Románek (2015) gaineratzen du:

Estas estrategias nos permiten abordar uno de los aspectos más controvertidos en la enseñanza de las UF, en concreto determinar qué UF hay que enseñar y en qué momento del proceso de aprendizaje hay que enseñarlas. Se trata de una cuestión fundamental en cualquier proceso de enseñanza-aprendizaje, pero que adquiere especial relevancia en el caso de las UF. (Núñez-Román, 2015: 160).

Núñez-Román (2015) irakasleak planteatzen du arestian aipatutako estrategia horien bitartez beste pauso bat eman behar dela eta unitate fraseologikoen irakaskuntzan dagoen alderdi korapilatsu bati aurre egin behar zaiola: ze unitate fraseologiko irakatsi behar den eta ikasbidearen zein momentutan irakatsi behar den, eta jarraitzen du esanez oraindik ez dagoela irizpide horren arabera eginiko errepertorio fraseologikorik gazteleraz “Del mismo modo, la organización de UF en centros de interés relevantes para el alumno supondría un importante avance en la selección de las UF, pero

lamentablemente no hay aún ningún repertorio fraseológico organizado según este criterio”. (Nuñez-Román, 2015: 160)

Hor egon daiteke gakoetariko bat, hau da, geuk ere (euskararen kasura itzuliz) non bilatu badugula, era askotako bildumak, artikulak eta liburuak (Mokoroa, Azkue, Izagirre, Zamarripa, esaterako) baditugula, baina irakaskuntzari begira, ikasleentzako interesguneak identifikatu gabe eta trebetasun edo konpetentzia batzuk ala besteak lantzeko sailkatu gabe.

Dena den, ematen du Núñez-Románek (2015) planteatzen dituen estrategia horiekin ondo uztartu daitekeela GRAL honen helburua, hau da, besteak beste, tresnaren batzuk sortzea/bilatzea komunikazio beharrizanei era jolasgarrian erantzuten saiatzeko. Autore horen arabera Lehen hezkuntzan funtsezkoa da ikasleen komunikazio-gaitasuna hobetzea eta aberastea. Horretarako, bada, proposatzen du unitate fraseologikoak giltzarri (clave) batzuen (gaiak edo hitzak) inguruan antolatzea. Horri esker, mapa kontzeptualen barnean antolaturik agertuko dira unitate fraseologikoak, gai baten inguruan alegia.

Unitate fraseologikoen arteko harreman semantikoak funtsezko tresna dira ikasleek hiztegia (hemen lexikoaren ikuspuntua da nagusi) aberasteko eta unibertso hori antolatzea zelanbait suspertzeko. Baina hezkuntza-etapa bakoitzaren beharrizanei egokitutako materialak eskaini beharko dira, ez baitira berdinak Lehen Hezkuntzako ikasleek eta Bigarren Hezkuntzakoek dituzten gaitasunak.

Pradok bereizten dituen faseak oinarritzat hartuta, Núñez-Románek (2015) honako ekintzen segida posible bat planteatzen du Lehen Hezkuntzan konpetentzia fraseologikoa garatzeko:<sup>5</sup>

- 1.- Ulertze-fasea (*fase de reconocimiento*).
- 2.- Finkatze-fasea. (*fase de fijación*)
- 3.- Arakatzefasea (*fase de exploración*).
- 4.- Esplotazio-fasea. (*fase de explotación*)
- 5.- Indartze-fasea. (*fase de refuerzo*)

Dagoeneko, beraz, badakigu unitate fraseologikoen esparruan mugitu gaitezkeela adierazkortasuna eta bizitasuna lantzeko ahaleginetan; baditugu, beraz, UFekin egiteko ariketa eredu posible batzuk; badugu ere UFen sailkapenen inguruko informazioa, baina... ez dugu lortu zehaztea eta mugatzea zein arlotan komeniko zaigun indar egitea: kolokazioetan? lokuzioetan? formuletan? paremian?... Ze konpetentzia lantzeko:

---

<sup>5</sup> 3.4 atalean zehatzago azalduko da Núñez-Románek planteatzen duen ekintzen segida hori.

lexikoarena, komunikazioarena ala kultur kompetentzia? Zerk emango digu emaitza hobea Lehen Hezkuntzan fraseologia lantzerakoan?

### 2.3.2. Fraseologiaren irakaskuntza bigarren hizkuntzan

Bigarren hizkuntzetan fraseologiaren lanketari buruzko artikulu, tesi-lan eta liburuen artean aipagarria da Marc Aguilera Vidal-en (2016) tesi lana. Honako iritziak jasotzen dira lan horretan:

En la didáctica de las frases hechas tendremos en cuenta principalmente dos ideas muy claras sobre las posturas de los expertos. La primera postura defiende que la mejor estrategia posible para ser capaces de enseñar bien la fraseología sería elaborar un estudio y clasificación exhaustivos de todas las UFs. Así Penadés (1999: 21-22) insiste en que [...] Una clasificación sistematizada de las locuciones nos facilitaría su presentación y enseñanza. (Aguilera, 2016: 8-9)

Horren aldean, adituek duten bestelako ideia baten berri ematen digu Aguilera:

La segunda postura no se preocupa tanto de las clasificaciones y las tipologías, sino de las necesidades comunicativas del hablante en su día a día. Higuera (1997: 16) sostiene que los criterios más pedagógicos para el tratamiento de las UFs consisten en agruparlas por su significado, es decir relacionadas con una función comunicativa (por ejemplo la descripción del carácter de una persona), o bien por temas y propone actividades diseñadas alrededor de temas (el trabajo, el médico, el ocio). Por su parte Tortajada (2000) propone actividades elaboradas en torno a la función comunicativa (mostrar rechazo, expresar opinión, estar de acuerdo) (Aguilera, 2016: 9).

Hortaz, bi ikuspuntu ezberdin fraseologiaren didaktikaren inguruan: batek UFn ezaugarrien sailkapen zehatzean jartzen du indarra; besteak hiztunen komunikazio beharrezan (funtzio komunikatiboari) erreparatzen die. Ildo beretik, Aguilera Vidal-ek (2016) jarraitu egiten du bigarren ikuspuntu hori hobetsi egiten duten adituen berri ematen:

La mayoría de los autores inciden en la necesidad de desarrollar clasificaciones desde el aspecto semántico, y clasificaciones desde el aspecto pragmático. Buitrago (2015: IX) comienza el prólogo de la última edición de su Diccionario de dichos y frases hechas así «¿Dichos? ¿Frases hechas? ¿Locuciones? ¿Modismos? ¿Expresiones? ¿Fraseología?... Batiburrillo o, más propiamente, cajón de sastre en el que, quizá por fortuna, nada hay claramente deslindado», y con ello parece querer decirnos que para poder comprender, aprender y usar dichas UFs, poco o nada necesita uno saber de la tipología a la que pertenecen. (Aguilera, 2016: 9).

Hara hor harritzeko moduko adierazpena, eta nork egina gainera, hain zuzen ere arlo horretan hiztegiak den batek, non eta 2015 urtean berritan argitaratutako hiztegiaren hitzaurrean. Asmo-deklarazio argia bere aldetik: unitate fraseologikoak ulertzeko, ikasteko eta erabiltzeko ezer gutxitarako balio dutela sailkapenek.

Baina Aguilera (2016) ere GRAL honetan orain arte aurkitutako zailtasun beraren berri ematen du tesi-lan horretan. Hain zuzen ere ikasle-talde bakoitzari zer eskaini

behar zaion zehaztea. Zeintzuk unitate fraseologiko dira benetan egokiak dena delako ikas-mailatan? Zergatik horiek eta ez beste batzuk aukeratu beharko dira Lehen Hezkuntzako umeekin lantzeko? Hauxe dio:

[...] algunos autores advierten que la mayor dificultad a la hora de diseñar y elaborar materiales didácticos se encuentra en la selección de las UFs, como Penadés (1999: 23) que señala que al profesor le resulta difícil seleccionar aquellas unidades que deben presentarse en cada nivel y a ello se añade la escasez de materiales adecuados que faciliten su tarea. (Aguilella, 2016: 9-10)

Ikusten denez, irakasleentzat zaila da UF egokiak aukeratzea, lanerako material egoki(tu) gutxi dutelako. Dena den, irizpideren bat aukeratzekotan Aguilellak ez du aukeritzen gramatikarena (2016: 10): “Estamos en ese sentido más en la línea de la opinión de Higuera (1997: 16), que cree que el criterio gramatical está muy bien pero solo para los gramáticos”. Tesi-lan horren helburuak zehazterakoan Aguilellak (2016, 10) dio ez duela bilatzen esaldi egin guztiak erabat sailkatzea, ez duela uste betirako sailkapen tipologikoa dagoenik; gaineratzen du UFen ezaugarri nagusiak (finkatzea, idiomatikotasuna, enuntziatu osoa izatea edo ez izatea, etab.) ulertu nahi dituela eta horretan oinarrituta UF batzuk aukeratu nahi dituela plan curricularretan eta ikasliburuetan sartu daitezela.

Higuera irakaslearen zita eginez Aguilellak esaten duenak berretsi egiten du uste hori (2016: 10): “Finalmente Higuera (1997: 15-16) recalca la buena predisposición del alumno con estos contenidos, pues la fijación formal de las UFs facilita su asimilación y además el estar muy ligadas a aspectos de tipo cultural su estudio resulta muy ameno”. Hor agertzen dira, esaterako, GRAL honen helburu moduan planteatzen ziren bi arlo: kulturaren sakontzea atsegingarria izatea eta alde komunikatiboari indarra ematea, horretarako unitate fraseologikoak komikiaren bidez lantzeko proposamena burutu da.

#### **2.4. Komikien eta irudien erabilera UFen ikaskuntzan/irakaskuntzan**

Azkenik, GRAL honen osagaietako bat komikiaren euskarri grafikoa izango denez, jarraian, irudiek, komikiek edo osagai grafikoek irakaskuntzan izan dezaketen garrantziaren inguruko zenbait ideia emango dira, era oso-oso laburrean baino ez bada ere.

#### 2.4.1. Komikien/irudien erabilera Heziberriren esparruan

Heziberri 2020ren<sup>6</sup> esparruan, artearen arloek oinarrizko kompetentziak lortzeko ematen duten laguntza zehazten da Arterako Kompetentziari buruzko atalean (1.3.6)<sup>7</sup>:

Heziberrin planteatzen da oinarrizko zehar-kompetentzia guztiak garatzen laguntzeaz gain, oinarrizko kompetentzia espezifikokoak garatzen laguntzen dutela. Kompetentzia espezifikokoak, berriz, zuzenean daude lotuta curriculumaren arlo jakin batzuekin, baina, “ikaskuntzaren planteamendu globalizatailea oinarri hartuta, haren garapenean arlo guztiek eragiten dutela ulertzen da.”

“Arte-ekoizpen hori osatzen dute soinuen, koloreen, formen eta mugimenduaren erregistroek eta arte-ekoizpen horretan guztiz integraturiko ahozko eta idatzizko lengoaiak” (102. or.). Hor dago gure GRAL honetan uztartu ditugun hiru alderdiak: irudia eta idatzizko testua (komikia) eta testu horretan islatu nahi izan den ahozkotasuna. Ildo horretatik doa Hizkuntza- Eta Literatura-Komunikaziorako Kompetentziari buruz Heziberrin gaineratzen den hau (102. or.):

“Hizkuntza landu behar da musika-ekoizpen ugartan, garaiko artearen adar ugartan eta produktu estetiko askotan (publizitatean, bideo-jokoetan, komikietan eta beste produktu askotan) [...] Hizkuntzaren alderdi denotatiboa lantzeaz gain, haren alderdi poetikoa, erretorikoa, sinbolikoa eta beste zenbait alderdi lantzen dira musikari hitzak jartzean eta produktu estetikoetan testuak txertatzean. Jarduera horiek eginda, bereziki landu eta garatzen dira, hizkuntzaren bidez, pentsamendu emozionala, adimen kualitatiboa eta sentsibilitatea. [...] hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia lantzen laguntzen da arlo eta ikasgai horietan sortzen den arte-ekoizpen gehienaren bitartez”.

Hortaz, Lehen Hezkuntzako Curriculumaren Berariazko Ikuspegiaren arloan (117. or.), Hizkuntza- eta Literatura-Komunikaziorako Kompetentzian, Lehen Hezkuntzako 1. zikloko edukien artean, Literatura-hezkuntzari buruzko laugarren Multzoan komikiaren arloa agertzen da landu daitezkeen beste literatura-adierazpenen artean. Era berean, “Ipuinak, poemak, kontakizunak eta bertsoak ahoz nahiz idatziz modu gidatuan eta zenbait eredutan oinarrituta birsortzea eta ekoiztea” ere baliabide moduan planteatzen da. GRAL honetan horixe planteatu da baliabide moduan, hain zuzen ere istorio bat komiki eran ematea eta testuz hornitzea era adierazkorrean.

---

<sup>6</sup> Heziberri 2020. Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

<sup>7</sup> Arterako kompetentziaren barneko arloek eta ikasgaiak curriculumaren oinarrizko zehar-kompetentziak eta kompetentzia espezifikokoak lantzen laguntzen dute, ezinbestekoak baitira komunikazioak gauzatzeko, mundua irudikatzen, gizartean moldatzeko, sentimenduak adierazteko eta sormena sustatzeko.

Arterako kompetentziari buruzko 5 atalean lehen Hezkuntzako edukien artean dago arte-adierazpen plastiko eta bisualak ekoiztea, espresatzea eta sortzea eta horren barnean planteatzen da “Irudiak sortzea eta manipulatzeko, argazkigintza, collagea, komikiak, kartelak eta antzeko baliabideak erabilia”.

#### **2.4.2. Komikiak, eta irudiak orokorrean, erabiltzearen gaineko beste iritzi batzuk**

Gai honi buruzko lan edo artikulua interesgarri ugarien artean, honakoek giltzarri batzuk eskaintzen dituzte (bakoitzaren iruzkin oso laburra baino ez da egiten lan honetan):

.- Daiana Yamila Rigo. *Aprender y enseñar a través de imágenes. desafío educativo*

<http://asri.eumed.net/6/educacion-imagenes.html>

Lehen hezkuntzan irudiek baliabide pedagogiko moduan duten garrantzia azpimarratzen du.<sup>8</sup>

.- Alicia de la Peña Portero. *Propuesta metodológica para enseñar expresiones idiomáticas* (selección).<sup>9</sup>

<http://redined.mecd.gob.es/xmlui/bitstream/handle/11162/76330/00820103006899.pdf?sequence=1>

..- Evirtualplus atarian: Marit Acuña egindako lana: *Innovación educativa: Enseñar con memes*

<https://www.evirtualplus.com/innovacion-educativa-ensenar-con-memes/>

Artikulu interesgarria da, besteak beste, honakoen inguruko azalpenak ematen direlako: “meme” kontzeptua zer den, irakaskuntzan zertarako balio dezaketeen, irudiak eta testuak nola lotu daitezkeen, besteak beste memeak sortzeko plataformen berri ere ematen da.

.- Barrero, M. *Los cómics como herramientas pedagógicas en el aula. Cuaderno del maestro*, (2009), <http://cuadernodelmaestro.blogspot.com>

Komikiak ikasgelan baliabide pedagogiko moduan zergatik eta nola erabili azaltzen duen ponentzia oso interesgarria da. Komikiak erabiltzeak dituen abantailak

---

<sup>8</sup> Hauxe dio webgunean: Por último, es interesante reconocer que la imagen es un soporte funcional [...] como recurso pedagógico que contribuye a: 1). La comprensión de contenidos abstractos y difíciles de interpretar; 2). La motivación para aprender y profundizar con lecturas complementarias; 3). La presentación de nuevos conceptos; 4). La promoción del recuerdo de los contenidos aprendidos y enseñados; 5). El fomento de una comunicación auténtica en el aula y relacionada con la vida cotidiana; 6). La estimulación de la imaginación y expresión de emociones; y 7). La activación de conocimientos previos [...]. Los resultados revelan que el uso de la imagen como recurso didáctico debería ser tenido en cuenta como una estrategia de enseñanza-aprendizaje para planificar las tareas académicas

<sup>9</sup> Ildo horretan hauxe dio: Por elementos visuales nos referimos a fotos, dibujos, vídeos, cómics, gráficos, señales, símbolos, planos, mapas y un largo etcétera. Las imágenes tienen, además, la ventaja de que se pueden encontrar casi en cualquier parte [...]. Incluso se puede contar con los dibujos hechos por el profesor o los alumnos. En muchos casos, estas imágenes caseras crean bastante interés y la ausencia de calidad profesional se compensa con la buena aceptación que se genera



zerrendatzen ditu (sormena bultzatzea, espresabideak garatzea...); zikloetan oinarritutako sekuentziario tenporala egiten du komikien lanketa egiteko<sup>10</sup>.

.- Pinterest atarian <https://www.pinterest.es/pin/446911962997236501/> komikien inguruko tresna ugari erabiltzeko estekak ematen dira: “(Descubre ideas sobre Aprendizaje Cooperativo. Recurso - Bloque 2 Enseñar con Cómics. El uso de cómics en el aula es una excelente manera de llegar a los estudiantes y hacer que su enseñanza sea más entretenida. Echa un vistazo a sitios web de comics [...])”

.- Beste honi ere erreparatu zaio: “Lehen Hezkuntzako Bloga/Getxoko Berritzeguneko LH-ko irakasleen webgunea. Blog de Primaria. Komikia lantzen/ Trabajando el cómic” <https://b07lehenhezkuntza.wordpress.com/2008/12/09/komikiak-egiten/>, non, bestek beste, Lehen Hezkuntzarako komikiekin loturiko baliabideak (Pixton, Stripcreator, stripgenerator, Toondoo) jasotzen diren.

Horraino, fraseologia eta irakaskuntza uztartzeari (agian, irakatsi beharrari) buruzko oinarri teorikoa. Hemendik aurrerakoa arlo praktikoagora bideratuta egongo da.

### **3. Metodologia: Komikiaren bidez unitate fraseologikoak lantzen**

#### **3.1. Sarrera**

Marko teorikoaren atalean ikusi denez, iritzi orokorra da unitate fraseologikoak ez daudela behar bestean landuta, batez ere ama hizkuntzaren irakaskuntzan. Uste orokorra ere bada baliabide pedagogikoak urriak direla eta ahalegin berezia egin behar dela hizkuntzen fraseodidaktikan.

Argi geratu da ere unitate fraseologikoak (horrela, orokorrean hartuta) lantzeak aukerak zabaltzen dituela hizkuntzak sormenaren aldetik eta adierazkortasunaren aldetik dituen gaitasunak hobetzeko eta gaitasun fraseologikoak hobetzeko. Horretarako bide bat izan daiteke irakasleei errepertorio fraseologikoak eskura jartzea, non aurkitu ditzaketen jakinaraztea, bakoitzean zer eta nola antolaturik dagoen zehaztea eta irakaskuntzarako materialgintzan zer probetxu atera diezaiekeen erakustea. Horixe izango da metodologiaren atal honetan emango den lehen pausoa, hain zuzen ere fraseologiaren arloan euskaraz baliagarri izan daitezkeen bildumak, liburuak, aldizkariak, artikulak eta webguneak zerrendatzea. Horrezaz gainera, horietariko bakoitzak dituen osagaiak

---

<sup>10</sup> “PRIMER CICLO (6-8 años): - Adquisición e interiorización de los códigos y elementos básicos [...]. SEGUNDO CICLO (8-10 años): - Análisis sencillo de los principales elementos de que consta el lenguaje del cómic [...]. TERCER CICLO (10-12 años): - Trabajar la importancia de que la narración de la historieta sea coherente e interesante frente a un perfeccionismo en los dibujos [...].”

eta eskaintzen dituen aukerak azaltzeko ahalegina egingo da, beti ere irakasleek non zer aurkitu dezaketen argiago erakusteko.

Behin materialak (UF) nondik atera daitezkeen ikusita, marko teorikoan ematen diren aukerak aintzat hartuta, materialgintzarako (ariketak prestatzeko) bide posible batzuk planteatuko dira. Adierazkortasuna hobetzeko baliagarri izan daitezkeen UF fraseologiko batzuen laginketa posible bat ere planteatuko da.

Azkenik, laginketa xume horretan oinarrituta, benetako ariketa bat egingo da, ikuspegi jolasgarriari eta grafikoari garrantzia emanez, GRAL honen giltzarrietako bat horixe da eta. Hain zuzen ere, ipuin edo komiki bat egingo da, Unitate fraseologikoak lantzeko

### **3.2. Unitate fraseologikoen bildumarako iturriak**

Hasierako ohar moduan esan behar da zerrenda honetan agertzen diren lanak ez daudela sailkatuta ematen diegun garrantziaren arabera. Helburua ez da batzuk besteen aurretik jartzea. Dena den, “iturri” bakoitzaren deskribapena egiterakoan, ahaleginduko gara GRAL honetarako izan duen baliagarritasunari buruzko iritzi apala ematen. Zehaztasun horiek 7. Atalean daude I. Eranskinetan.

Bestalde, material bakoitzaren deskribapenean, material hori sarean aurkitzeko eta erabiltzeko moduan badago, esteka jarri egin dugu, erreferentzia bibliografikoen atalera edo eranskinetara beti joaten ibili beharrik ez izateko, nahiz eta gero erreferentzien artean eta eranskinetan ere agertzen diren.

Hona hemen “iturrien” zerrenda posible bat:

A).- Resurrección María Azkue. *Euskalerrriaren Yakintza III* alean euskaraz *Esakerak* eta gazteleraz *Modismos* deitzen den atalean, 233-351. orrialdeetan (Azkue, 1945: 234)

B).- Gotzon Garateren bi lan:

a) *Atsotitzak bilduma* (Garate, 2003). 30 000 esaera zahar inguru, Euskal Herri osokoak. Gehienak landa-lanean bilduak; batzuk beste bildumetatik hartuak, edo laguntzaileengandik. Eleaniztuna da: euskara (14.458), gaztelania (5.208), ingelesa (4.045) eta latina (3.462).. <http://www.ametza.com/bbk/htdocs/garate.htm>

b) *Erderakadak*. Euskaraz ongi mintzatzeko *Hiztegia*. *Zazpi Probintzietako Adibideak* (Garate, 1984).

C).- *Kalkoen behatokia*. EITBk eta Euskal Herriko Unibertsitateak sortu duten aplikazio informatikoa. <http://www.ehu.eus/ehg/kalkoak/>

D).- Koldo Izagirrearen *Euskal Lokuzioak. Espainolezko eta frantsesezko gida-zerrendarekin*. Lan honetan oinarrituta, Intza proiektua abiatu zen, Euskal Lokuzioak Sarean webgunean. Sarean hemen aurki dezakegu: "<http://intza.armiarma.com/>

E).- Justo Maria Mokoroaren *Ortik eta emendik. Repertorio de locuciones del habla popular vasca, oral y escrita, en sus diversas variedades* bilduma (Mokoroa, 1990). Online kontsulta daiteke: <http://www.hiru.com/hirupedia>

<https://www.hiru.eus/es/justo-mokoroa?action=entrarMokoroa>

F).- Gaur egun tresna oso erabilgarria dago guztien eskura: *Labayru Hiztegi Fraselogikoa*.

<https://hiztegia.labayru.eus/ED?locale=eu>

G).- Pablo Zamarriparen *Manual del Vascófilo* liburuan argitaratutako euskal lokuzioen bilduma. Sarean, liburuaren orrialdeen "argazkiak" dagoz (ezin daiteke testu bilatzaileak erabili).

<http://www.liburuklik.euskadi.eus/jspui/handle/10771/24354>

H).- AEK, Aizu, 205-228 zk., 1998/01-1999/01 *Gaztelaniazko esamoldeak euskaraz*. Gaztelerazko ohiko esamoldeak abede hurrenkeran jarrita ditu eta horien euskarazko ordainak ematen ditu. [Gaztelaniazko esamoldeak euskaraz](#).

I).- Centro Virtual Cervantes, *Refranero multilingüe*.  
<https://cvc.cervantes.es/lengua/refranero/>

J).- Xabier Altzibarren *Hizketa Formula Ohikoak* artikulutik aukeratutako zenbait formula. [www.ehu.es/ojs/index.php/ASJU/article/download/9632/8870](http://www.ehu.es/ojs/index.php/ASJU/article/download/9632/8870)

K).- [Hizkuntza Baliabideak Sarean](#). Euskararen inguruko baliabide ugari (programak, tresnak, bilatzaileak, hiztegiak, corpusak, testu eredugarriak, zalantzak argitzeko baliabideak, etab.) biltzen dituen webgune interesgarria

<https://sites.google.com/site/ehoibi/lokuzioak-eta>

### 3.3. Unitate fraseologikoak hautatzeko irizpideak

Marko teorikoan geundela Buitrago (2015: 9) *Diccionario de dichos y frases hechas* hiztegiaren sarreran esaten zuen honekin hasiko gara: "para poder comprender, aprender y usar dichas UFs, poco o nada necesita uno saber de la tipología a la que pertenecen.". Edo Penadésen (1999: 23) beste hau ere gogotara ekarriko dugu: "al profesor le resulta difícil seleccionar aquellas unidades que deben presentarse en cada nivel y a ello se añade la escasez de materiales adecuados que faciliten su tarea.". Edo Aguilak (2016: 9-10) ildo horretan esaten duena "algunos autores advierten que la mayor dificultad a la

hora de diseñar y elaborar materiales didácticos se encuentra en la selección de las UFs”.

Hara hor lan honen gakoetariko bat: zeintzuk UF aukeratu adierazkortasuna bultzatzeko (eta bide batez, inguru grafikoan erabilgarriak izateko)? Merezi ote du UF mota zehatz batera (edo batzuetara) mugatzea? Hau da, paremiak, errutinazko formulak, lokuzioak edo kolokazioak aukeratuko ditugu? Ikus dezagun adibide erraz baten bitartez horietariko batera mugatzeak zentzu gutxi izan dezakeela, agian. Eman dezagun *kuku* hitzaren inguruan egon daitezkeen unitate fraseologikoekin “jolastu” (2.3.1 atalean aipatzen den arakatze-lana) nahi dugula:

| Kolokazioa                                  | Lokuzioa                         | Paremia                                     | formula                                |
|---|----------------------------------|---|--|
| <i>Kukuak mendian jo du gaur lehenengoz</i> | <i>azken kukuak jo dio horri</i> | <i>San Juanetan kuku, san Pedrotan mutu</i> | <i>Biba Baxenabarre! Kuku Lapurdi!</i> |

Hasi gaitezen idiomatikotasun gutxien duen UF motarekin, kolokazioekin, alegia. *Kukuak mendian jo du gaur lehenengoz*. Esaldi horretan *kukuak* “jo” egiten duela eta ez kantatu\* ikasi dezakete ikasleek; hor ez dago hitz biren arteko lotura zuzena baino, hizkuntzaren zuzentasunarekin loturiko gaia da, beraz. *Kukuak* jotzea eskatzen du eta kito. Antzeko adibideak izango lirateke beste kolokazio batzuk, *gitarra jo*, adibidez, *gitarra* ere jo egiten baita, ez ukitu\*. Lokuziora pasatu eta norbaiti *azken kukuak jo diola* entzuten badugu, norbaiti hiltzeko ordua heldu zaiola esaten ari dira. Hor idiomatikotasunean sartu gara. Goiko beste adibidearekin lotuz gero, norbaiti *adarra jo* diotela esaten badugu, lokuzio horrekin denok ulertzen dugu adarrarekin eta jotzearekin zerikusirik ez duen zerbaitez ari garela. Bestalde, *San Juanetan kuku, san Pedrotan mutu* paremia oso ezaguna da Euskal Herri osoan udaberri sasoiari buruz dihardugunean. Hori kultura tradizionalarekin, herri-jakintzarekin, loturik dago (kukuaren inguruan oso ugariak dira aurkitu ditzakegun paremiak). Azkenik, *Biba Baxenabarre! Kuku Lapurdi!* (Garate 9856) animoak emateko formula dago. Arakatze-lanari ekinez, *kuku* hitzarekin lotuta, hainbat lokuzio ere aurkitu ditugu arestian aipaturiko “iturrietan”. Adibidez, AEK-ren *Gaztelaniazko esamoldeak euskaraz* iturrian gaztelerazko “CARA” sarreran, honakoa aurkitu dugu: tener la suerte de cara: “*kukuak jo*”, “Lanean ari denari *kukuak* jotzen dio”; gaztelerazko “ANTENA” sarreran: poner la antena: *belarria(k) eman, zabaldu, zorroztu./ erne ibili./ belarriak zut ibili./ kukuka ibili*; “BARRIO” sarreran honakoa aurkitu dugu: irse al otro barrio: *azken hatsa eman./ zendu./ azken kukuak jo./ hurrengo kukuak ez entzun*.

Hortaz, era guztietako unitate fraseologikoak izan daitezke baliagarri hizkuntza aberasteko, eta aurreko adibide batzuk egokiak izan daitezke, era batera edo bestera, adierazkortasuna lantzeko ere. Horren ildotik, erabat zabalik utzi daiteke “iturri” horien guztien ekarpena. Badaude, hala ere, ahozko jarduna erraztu edo bizkortu dezaketen UF batzuk, oso probetxugarriak GRAL honen helbururako. Hizketa-formulez ari gara.

Horien inguruko lan interesgarria da Xabier Alzibarren *Hizketa-formula ohikoak* artikulua. Alzibarrek dioenez:

Paremiak eta formulak elkarrengandik bereizten dira: alde batetik, haiek esanahi erreferentziala dutelako; hauek, aldiz, esanahi sozial, adierazkor edo diskurtsiboa [...] Formulek eginkizun pragmatiko jakina dute gizakien arteko mintzabidezko harremanetan. [...] Usuenik berriak kontatzeko baino gehiago mintzabidezko harremana ez galtzeko dira: *-Zer moduz? -Ondo esan beharko.* Hau da, ohi(turaz)koak edo rutinarioak dira anitz. [...] Gizarteko emozio egoerak eta erreakzioak arautzen baitituzte hiztunen komunitateak onartutako norman oinarritua [...] Gehienak hizketakoak eta elkarrizketakoak dira, nahiz hizkuntza idatziaren esparrukoak ere badiren [...] gehienak estilo neutro eta apalekoak dira, lagunartekoak edo familia artekoak [...] Konnotazio adierazkordunak oso ugari dira, jarrera-erakusleak baitira formula anitz, hiztunak bere sentimendu eta emozioak adieraztekoak, era konbentzionalean (Alzibar, 2002: 55-56).

Hortxe daude GRAL honen abiaburuan zeuden ideia batzuk: esanahi sozial, adierazkor edo diskurtsiboa, mintzabidezko harremanak, emozio egoerak eta erreakzioak arautzea, hizketako eta elkarrizketako osagaiak izatea eta konnotazio adierazkordunak izatea.

Alzibarrek (2002: 60-70) zenbait multzotan sailkatzen ditu. Sailkapen horren arabera antolatutako adibide ugari jasotzen ditu Alzibarrek artikulua horretan. Horien artean gure GRAL honetarako ariketetan erabiltzeko interesgarri irizitako batzuen aukeraketa edo laginketa agertzen da II Eranskinean.

Ildo beretik, elkarrizketa eta ahozko jardunerako oso baliagarri izan daitezke Zamarridak (1987) *Manual del Vascófilo* liburuan modismo bezala jasotzen dituen asko. Horien artean aukeraturikoen zerrenda ere agertuko da III. Eranskinean. Baina lan honen helburua ez denez UFen amaigabeko zerrendak egitea, probetxugarriago dirudi “iturrietan” interes batzuen arabera bilatzeko ariketak egitea.

### **3.4. Materialak nola landu aztertuz**

Marko teorikoan ikusi dugu Núñez-Románek<sup>11</sup>, ekintzen segida posible bat planteatzen duela Lehen Hezkuntzan konpetentzia fraseologikoa garatzeko:

---

<sup>11</sup> Prado Aragonés irakasleak (2004): *Didáctica de la lengua y la literatura para educar en el siglo XXI* lanean planteatzen duenari jarraituta atontzen du sailkapen hori.

- 1.- Ulertze-fasea (*fase de reconocimiento*): Fase honetan UF batzuk aterako dira ahozko zein idatzizko testutik eta ikasleek esanahia bilatu egin beharko dute hiztegian.
- 2.- Finkatze-fasea. UF finkatu eta ikasteko ariketak egingo dira. Honakoak egitea proposatzen da:
  - a) UF azaltzeko marrazkiak egitea (Oso loturik, beraz, GRAL honetan landu nahi dugunarekin).
  - b) UFaren inguruko dramatizazioak egitea<sup>12</sup>.
  - c) Ekintza jolasgarriak egitea: letra-zopa, gurutzegramak, pictionary, etab.
- 3.- Arakatzefasea (*fase de exploración*): UFaz dakitena zabaldu egingo dute ikasleek, beste UF batzuekiko harreman semantikoak bilatuz edo antzeko gaiko UFak bilatuz. Horretarako ariketa izan daitezke:
  - a) Hiz edo esaldi bera duten UFak bilatzea: <sup>13</sup>*orpoz-orpo, orpoak jaten...*
  - b) UFen sinonimoak bilatzea.
  - c) UF bat oinarritzat hartuta, gai berari buruzko beste UF batzuk bilatzea.
- 4.- Esplotazio-fasea: ikasitako UFak erabilera testuinguru egokietan erabili.
  - a) Esaldietan hitz batzuren orde esanahi bereko UFak jartzea.
  - b) UF batetatik abiatuta esaldiak sortzea.
  - c) UFen hitzez-hitzezko esanahiekin eta esanahi idiomatikoekin esaldiak egitea.
- 5.- Indartze-fasea: azken fase honetako ekintzen bitartez, indartu egingo da ikasitakoa.
  - a) UFen zatiak elkarrekin nahastuta eman eta zuzentzea: *Gau erdiko txakurraren auzia...*
  - b) Hutsak zuzentzea: *Buruz atzera, hankaz behera, atzekoz gora.*

Núñez-Román (2015) honako estrategia hauek proposatzen ditu Lehen Hezkuntzan lexikoa aberasteko <sup>14</sup>

En Educación Primaria, en la que es fundamental mejorar y enriquecer la capacidad comunicativa de los alumnos, será de especial utilidad la presentación de las UF agrupadas por temas o por palabras clave. Esto permitirá la creación de mapas conceptuales en los que se presenten las UF que giren en torno a un tema determinado (Núñez-Román, 2015: 161-162)

Marko teorikoaren atalean ikusi denez, erdigunean jartzen dira ikasleen komunikazio beharriak, erabilera maiztasunak eta interesguneak, eta benetako komunikazio egoeren bitartez ikastea proposatzen da, harreman kontzeptualetan indar eginez, ekintza suspergarri eta jolasgarrien bitartez.

Honaino helduta, unitate fraseologikoen zerrenda luzeak eta sailkapen zehatzak ezinbestean egin beharrik ez dagoela ikusita, ematen du “iturrietan” azterka ibiltzea, arakatzefasea egitea, bera ere ariketa emankorra izan daitekeela. Hain zuzen ere, Núñez-Román eta Prado ariketen hurrenkeran hirugarren pauso moduan agertzen den arren, proposatzen dugu horixe izatea abiaburuko ariketa (ikus. VI. eranskina)

<sup>12</sup> Horrelakoen adibidea hemen aurkitu daiteke: <https://botaba.eus/>

<sup>13</sup> Letra etzanez dauden adibideak GRAL honen egileak jarriak dira.

<sup>14</sup> Hori ere Prado Aragonés irakasleari jarraituta.

#### **4. Proposamena. Unitate fraseologikoak lantzeko komikiaren nondik norakoak**

Goazen orain aurrean teorian ikusitako horiek praktikara eramatera. Komikiko istorioko pertsonaia nagusia Tartalo da, eta beste pertsonaia mitilogiko batzuk izango ditu inguruan. Elkarizketa biziak izango dira eta horretarako langai ditugun unitate fraseologikoak erabiliko ditugu. Irudiz eta elkarrizketez osatutako istorioa izango da (ikus. V. eranskina).

#### **4.1. Komikia egiteko prozedura**

Ondorengo lerroetan komikiaren (bere osotasunean IV. eranskinean) osagai nagusien inguruko azalpenak emango dira: testua eta irudiak.

##### **4.1.1. Komikiaren testua osatzeko prozedura**

Lanaren garapena lau zutabetan oinarritu da (ikus. VI. eranskina):

- Lehenengo zutabea: AUKERATUTAKO UFak daude istorioan txertatuta.
- Bigarren zutabea: ZEREN BILA gabiltzan azalduko da. Batzuetan kontzeptu edo sentimendu batzuk izango dira (tristezia, etsipena, haserrea, mehatxua, ustekabea, jazarpena, harridura, alferkeria, baten bati gauza txarrak gertatzea, animoak ematea, axolarik eza... adierazteko moduak). Beste batzuetan, hizketaldia hasteko edo bukatzeko formulak, agurren ondorengo formulak edo hizketaldia antolatzeke formulak bilatuko dira; beste batzuetan “grazia” egiteko moduak; adibidez, Tartalok begi bakarra daukala-eta, horren inguruko txantxak egitea, eta “begia” ardatz moduan hartuta UFak bilatzea. Beste batzuetan, adibidez, erderaz erabiltzen ditugun adierazpide bazuen ordekoak bidaltzea (“¡No fastidies!”).
- Hirugarren zutabea: UFak NON BILATU diren esaten da. 2.2 atalean zerrendatutako Iturrien laburdurak erabili dira<sup>15</sup>.

Beste “iturri” bat sartzerik egon zitekeen, norbere esperientziarena<sup>16</sup>, baina horretan norberak baino ez du sarbidea.

---

<sup>15</sup> Aizu. H).- AEK, Aizu, Gaztelaniazko esamoldeak euskaraz; Altz. J).- Xabier Altzibarren Hizketa Formula Ohikoak; Azk. A).- Resurrección María Azkue, Euskalerraren Yakintza; Cerv. I).- Centro Virtual Cervantes, Refranero multilingüe; Garat. B).- Gotzon Garateren Atsotitzak bilduma; Intz. D).- Koldo Izagirreraren Euskal Lokuzioak (Intza proiektua); Kalk C).- Kalkoen behatokia. (kontsultaren bat egiteko baino ez da erabili); Laby. F).- Labayru Hiztegi Fraselogikoa; Mok. E).- Justo Maria Mokoroaren Ortik eta emendik; Zam. G).- Pablo Zamarriparen Manual del Vascófilo.

- Laugarren zutabea: bilatutako AUKERA posible batzuk daude jasota. Normalean aurkitutako UF batzuek beste batzuk erabiltzeko “pistak” ematen dituzte. Adibidez, tristezia edo etsipena adierazteko erak bilatuz Koldo Izagirreraren lokuzioetara (Intz.) jotzen badugu, besteak beste, “begi ilunik egon” edo “bihotza ilundu” aurkituko ditugu. Horrek bidea zabaltzen digu “begi” edo “bihotz” hitzak dituzten UFak “iturri” guztietan bilatzeko eta horien inguruko ariketak sortzeko.<sup>17</sup>

Unitate fraseologiko batzuek beste batzuetarako bideak zabaltzen dituzte eta bide horretan esamolde asko aurkitzen ditugu

#### 4.1.2. Komikiaren irudien inguruko ohar batzuk

Komikia gauzatzeko, irudien estilo librea erabili da, zuri-beltzeko komiki klasikoaren estiloan. Karikatura soilak egin beharrean, errealismo puntu handiagoa erabili da. Elkarrizketak bi erataraz aurkeztu daitezke: edo komikien erara, “bokadilloen” barnean sartuta; edo bestela, irudiak bere horretan utzi daitezke eta elkarrizketak gidoi moduan aurkeztu daitezke. (ikus. IV. eta V. eranskinak).

### 5. Ondorioak eta etorkizunerako ildoak

Euskaraz adierazkortasuna hezkuntzan lantzearen aldetik ditugun gabeziatarako irtenbideak eta baliabideak aurkitu nahian abiatu gara lan honetan eta, ia oharkabea, fraseologiaren arloan murgilduta agertu gara.

Ikusi dugu euskararen eta gaztelararen kasuak bat datoze arlo batzuetan<sup>18</sup>, Euskaraz, berriz, erabileran dagoen pobrezia da arduraren nagusia, eta GRAL honen ondorioetako bat

---

<sup>16</sup> Esate baterako, horietako asko eta asko etxean ere entzunak dira, adibidez: “jaixu, koplak egin barik, begia baino gurago dozu-ta” (7.1. zenbakiko adibidearen modukoa ipuinaren gidoian); edo “ez zaitez holan pareu, txotxo!” (1.7. zenbakiko adibidea ipuinaren gidoian); eta beste asko.

<sup>17</sup> Batzuetan gaztelarazko eta ingelesezko adibideak (paremiak gehien bat) ere jarri dira Centro Virtual Cervantes, *Refranero multilingüe* eta Gotzon Garateren *atsotitzak bilduma* lanek hori egitea asko errazten dutelako (IKUS IV. Ranskina 46. or. 8. bineta).

<sup>18</sup> a) Fraseologiaren arloan material asko dago bilduta, aztertuta eta sailkatuta, baina hizkuntzalaritzaren ikuspegitik batik bat; b) antzeko zailtasunak sortzen dira batean eta bestean: Ze UF irakatsi behar dira? Ze trebetasun eta ze kompetentzia lantzeko balio dute? Nola osatu behar dira curriculumak fraseologiaren ekarpenarekin? Ikasketa-prozesuko zein momentutan? Ze estrategia erabili behar da fraseologia irakaskuntzan sartzeko? c) UFak ikasleentzako interesguneen arabera antolatu gabe daude; d) ez dago irizpide horien arabera antolatutako errepertorio fraseologikorik. Beste arlo batzuetan oso ezberdinak dira. Adierazkortasunean fokua jarriz, euskaraz askotan ezinean aritzen gara sentimenduak, gogoak, nahiak... era naturalean adierazteko. Erderaz ez dagoenez zailtasun hori, gaztelaraz irakasten duten irakasleak ez daude arduratuta ikasleek “¡venga ya!” edo “más vale pájaro en mano...” esaten ez dakitelako. Hori eurentzat ez da irakaskuntzaren “ardura”, inguruak (lagunarteak, familiak, gizarteak...) berez-berez ematen dituelako horien modukoak. Euren arduraren da hizkuntzaren aberastasunean sakontzea, kultura elikatzea nolabait.



izan da pobrezia hori ez dela fraseologiaren aldetik aberastasunik ez daukagulako, daukaguna ezagutzen eta erabiltzen ez dugulako baino.

Horretara helduta, beste hausnarketa bat izan da ea eskolak/hezkuntza-sistemak zenbateraino bete ditzakeen berari dagokion arlo formalaz besteko zenbait funtzio; ea hezkuntzan nola landu behar den berez eskolaz kanpoko esparruei (familia, lagunartea, jaia, kirola, amodioa...) dagokien adierazkortasuna, bizitasuna edo berezkotasuna. Horri gaineratu behar zaio oso arin aldatuz doazela umeek eta gazteek komunikaziorako erabiltzen dituzten adierazpideak.

Hausnarketaren beste puntu bat izan da bigarren hizkuntza ikasteko prozesuan erabil daitezkeen fraseologiari buruzko ariketak zein mailataraino bereizi daitezkeen ama-hizkuntza (komunikazio-hizkuntza behintzat) lantzeko erabili daitezkeenetik.

Bestalde, GRAL honetan egindako errebisio bibliografikoa eta gero, beste ondorio bat izan da irakaskuntzan fraseologiaren barneko edukiak lantzeak merezi dezakeela eta, non arakatu jakinez gero, ez dela horren zaila. Printzipioz behintzat, ez diogu fraseologia ikasgai moduan irakatsi behar denik, baizik eta unitate fraseologikoak (zabaltasunik handiengan hartuta) lantzeko irakasleentzako/ikasleentzako material batzuk sortu daitezkeela, bide batez naturaltasuna eta euskal kultura suspertze aldera.

GRAL hau araketa-prozesu moduan planteatu da eta prozesuak berak emandako informazioak balio handia hartu du. Edukiak nondik atera aztertu da, ariketa posibleen inguruko hausnarketa planteatu da eta irakaskuntzari/hezkuntza-sistemari “etxerako lan” batzuk jarri beharra egon daitekeela ondorioztatu da, besteak beste, honako lan hauek:

- Irakasleek erabil ditzaketeen erreperatorio fraseologikoak osatzea.
- Unitate fraseologikoen sailkapenak egitea, baina ikasleen interesguneen arabera.
- Adinari mailaz maila egokitutako ikasketa-materialak prestatzea eta horretarako materiala nondik atera/aukeratu ez eze, material horren egokitasuna neurtu eta baloratzea.
- Eduki horiek guztiak curriculumean sartzea, konpetentziak eta trebetasun arloak sendotzeko.

Hori guztia jakinaren gainean egonik Heziketa/Irakaskuntza-sistemak hizkuntzaren bizitasunean eragiteko muga batzuk dituela (ezin dugu irakaskuntzaren lepo gainean soilik utzi ardura handi hori). Izan ere, egiteko geratzen den lanaren handitasuna ikusita,

zalantzarik gabe, hezkuntza-sistema osoari dagokion zeregina izango da arestian planteatzen ziren erronkei erantzutea.

- Azkenik, behar bada eginkizunen artean pauso bat urrunago joanaz, hausnarketa-bide bat utzi daiteke irekita, ikusteko ea ez ote den komenigarria konpetentzia fraseologikoa konpetentzia berezi moduan hartzea<sup>19</sup>. Horren erantzuna, eta GRAL honetan zehar planteatu diren galdera askorena, airean geratzen dira, hausnartu beharra izan ditekuelako lan honen ondoriorik nagusienetakoa.

---

<sup>19</sup> Horren inguruan, Francisco Núñez-Románek hauxe jartzen du mahai gainean: Los hablantes nativos disponen de un amplio repertorio de fraseologismos, adquiridos a través del uso, que conforman lo que Solano Rodríguez [SOLANO RODRÍGUEZ, María Ángeles (2007): “El papel de la conciencia fraseológica en la enseñanza y aprendizaje de una lengua extranjera”, en *Les expressions figées en didactique des langues étrangères*, GONZÁLEZ REY, I. (ed.), Cortil-Wodon, EME, 201-211.] denomina “competencia fraseológica”, que debería ser añadida al resto de habilidades lingüísticas. Esta autora reflexiona sobre la “competencia fraseológica” en el ámbito del *Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas* y la adquisición de una lengua extranjera. No obstante, consideramos que se trata de un concepto interesante que se debe importar a la enseñanza de la lengua materna (Núñez-Román 2015, 155. or.).

## 6. Erreferentzia bibliografikoak

- Acuña, Marit (2017ko aprila) “*Innovación educativa: Enseñar con memes*”. Evirtualplus webgunetik 2019ko martxoaren 21ean eskuratua: <https://www.evirtualplus.com/innovacion-educativa-ensenar-con-memes/>
- Aguilella Vidal, Marc. “*Clasificación de fraseología adaptada para la enseñanza de español como lengua extranjera*” Martí Contreras, Jorge zuzendaria. (Master amaierako lana). Universitat Jaume I, Departament de Filologia i Cultures Europees, Castelló de la Plana, 2016. 2018ko azaroaren 11n hemendik eskuratua: <http://repositori.uji.es/xmlui/handle/10234/166146?locale-attribute=enPDF>
- Altzibar, Xabier. “Kolokazioak euskaraz. Zer axola duten kazetaritzan”. *Euskarazko kazetaritzaren I. kongresua. Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*. 2005, 383-395. UPV/EHU. 2018ko azaroaren 6an hemendik eskuratua: <https://www.argia.eus/kazetaritza2004/xabieraltzibar.pdf>
- Altzibar, Xabier. “Hizketa Formula Ohikoak”. *Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo - Julio Urkixo Euskal Filologi Mintegiaren Urtekariaren Gehigarriak*. ASJU 2002, 44, 53-71. 2018ko azaroaren 7an hemendik eskuratua: <http://www.ehu.es/ojs/index.php/ASJU/article/view/9632>
- Barrero, M. “Los cómics como herramientas pedagógicas en el aula”. *Cuaderno del maestro*, (2009). 2019ko martxoaren 23an hauetatik eskuratua: <http://cuadernodelmaestro.blogspot.com> eta <https://www.tebeosfera.com/1/Hecho/Festival/Jerez/ConferenciaJerez020223.pdf>
- Berritzegunea. Getxoko Berritzeguneko LH-ko irakasleen webgunea. Lehen Hezkuntzako Bloga. *Komikia lantzen/ Trabajando el cómic*. <https://b07lehenhezkuntza.wordpress.com/tag/baliabideak/>
- Casares, Julio (1992). *Introducción a la lexicografía moderna*, Madrid: SCIS
- Centro Virtual Cervantes. Refranero Multilingüe. Erabilitako webgunea: <https://cvc.cervantes.es/lengua/refranero/>
- Corpas Pastor, Gloria. (1997): *Manual defraseología española*, Madrid: Gredos
- Corpas Pastor, Gloria. (2001). “En torno al concepto de colocación”. *EUSKERA - XLVI*, 2001, (89-108). 2018ko urriaren 23an hemendik eskuratua: <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/11643.pdf>
- De la Peña Portero, Alicia. “Propuesta metodológica para enseñar expresiones idiomáticas (selección)”. *Universidad Antonio de Nebrija (aldizkaria) biblioteca 2005*, 3. primer semestre 2005. 2019ko martxoaren 21ean hemendik eskuratua: <http://redined.mecd.gob.es/xmlui/bitstream/handle/11162/76330/00820103006899.pdf?sequence=1>
- Esamoldeak euskaraz, *Aizu*, 205-228, 1998/01-1999/01. Erabilitako webgunea: [Gaztelaniazko esamoldeak euskaraz](http://www.gaztelaniazko.esamoldeak.euskaraz)

Garate, Gotzon. *Erdarakadak. Euskaraz ongi mintzatzeko Hiztegia Zazpi probintzietako adibideak*. Ediciones Mensajero, 1988.

Garate, Gotzon (1985) . *Euskal Atsotitzak / Refranes / Proverbs / Proverbia*. Mensajero. Bilbo. Erabilitako webgunea: <http://www.ametza.com/bbk/htdocs/garate.htm>

González Rey, María Isabel (2012): “De la didáctica de la fraseología a la fraseodidáctica”, *Paremia*, 21, 67-84.

*Kalkoen Behatokia*. UPV/EHU, Euskara Institutua, Gramatika. Erabilitako webgunea: <http://www.ehu.eus/ehg/kalkoak/>

Kaltzakorta Xabier. “Euskal Fraseologia: Historia, Oinarriak” *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak = Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca = Travaux et actes de l'Academie de la Langue basque*. Liburukia 46, 1, 2001, 73-87. 2018ko irailaren 17an hemendik eskuratua: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/11645.pdf>

Intza Proiektua - *Euskal Lokuzioak Sarean*. Elozegi, Joxan, Izagirre, Koldo, Landa Josu. Erabilitako webgunea: <http://intza.armiarma.com/>

Labayru Fundazioa. *Hiztegi fraseologikoa*. Erabilitako webgunea: <https://hiztegia.labayru.eus/ED?locale=eu>

Martínez Marín, Juan (1999): “Unidades léxicas complejas y unidades fraseológicas. Implicaciones didácticas”, *V Jornadas de metodología y didáctica de la lengua española: el neologismo*, González Calvo, J. M.; M. L. Montero Curiel y J. Terrón González (eds.), Cáceres, Universidad de Extremadura. Dpto. de Filología Hispánica-Instituto de Ciencias de la Educación, 97-116.

Martínez Marín, Juan. “Fraseología y pragmática (con especial referencia a la lengua española)”, *Cuadernos de lingüística* 14, Málaga, 1996, 103.

Mocoroa, J. M., 1990, “*Ortik eta Emendik. Repertorio de locuciones del habla popular vasca, oralyescrita, en sus diversas variedades*, 2 lib., Labayru-Eusko Jaurlaritzator. Erabilitako webgunea: <https://www.hiru.eus/es/justo-mokoroa?action=entrarMokoroa>

Moliner, M. (1994): *Diccionario de uso del español*, Madrid: Gredos.

Navarro, C. (2003): “Didáctica de las unidades fraseológicas”, en *Didáctica del léxico y nuevas tecnologías*, Calvi, M. V.; F. San Vicente (eds.), Viareggio-Lucca, Mauro Baroni Editore, 99-115.

Núñez-Román, Francisco (2015). “Enseñar fraseología: consideraciones sobre la fraseodidáctica del español”. *Didáctica. Lengua y Literatura* 2015, vol. 27, 153-166. ISSN: 1130-0531. 2018ko urriaren 24an hemendik eskuratua: [https://www.redib.org/recursos/Record/oai\\_articulo823364-ensenar-fraseologia-consideraciones-fraseodidactica-espanol/Bibliography](https://www.redib.org/recursos/Record/oai_articulo823364-ensenar-fraseologia-consideraciones-fraseodidactica-espanol/Bibliography)

Prado Aragonés, Josefina (2004): *Didáctica de la lengua y la literatura para educar en el siglo XXI*, Madrid: La Muralla.

Penadés Martínez, Inmaculada (1999): *La enseñanza de las unidades fraseológicas*, Madrid, Arco/Libros.

Real Academia Española, (1992) [1956]. *Diccionario de la lengua española (DRAE)*. Madrid: Espasa Calpe.

Seco, Manuel. *Diccionario fraseológico documentado del español actual*, Madrid: Santillana Ediciones Generales, 2005.

Yamila Rigo, Daiana. “Aprender y enseñar a través de imágenes. desafío educativo”. UMA Universidad de Málaga: *ASRI: Arte y sociedad. Revista de investigación*, ISSN-e 2174-7563, 6, 2014. 2019ko martxoaren 23an hemendik eskuratua: <http://asri.eumed.net/6/educacion-imagenes.html>

Zamarripa, Pablo (1987) *Manual del Vascófilo*. Bilbao: Wilsen Editorial. Erabilitako webgunea: <http://www.liburuklik.euskadi.eus/jspui/handle/10771/24354>

Zuluaga, A. (1980): *Introducción al estudio de las expresiones fijas*, Frankfurt a.M., Bern, Cirencester/U.K, Lang.

236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/01/1600141e.pdf>

236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea. [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri\\_2020/eu\\_2\\_proyec/adjuntos/OH\\_curriculum\\_osa.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/OH_curriculum_osa.pdf)